



EUSKAL HERRIKO ABESBATZEN ELKARTEKO PERTSONA HELDUEK OSATUTAKO ABESBATZEI BURUZKO AZTERKETA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



EUSKAL HERRIKO ABESBATZEN ELKARTEKO PERTSONA HELDUEK OSATUTAKO ABESBATZEI BURUZKO AZTERKETA

AURKEZPENA 3

METODOLOGIA ETA LAGINAREN DESKRIBAPENA 4

EMAITZEN ANALISIA 6

1. ANTZINATASUNA ETA FORMA JURIDIKOA 6
2. OSAERA 8
3. ELKARTEKIDEAK ETA ELKARTEAREKIN LOTUAK 9
 - 3.1 Elkartekideak 9
 - 3.2 Abesbatzaren zuzendaritza artistikoa 11
 - 3.3 Abesbatzekin lotutako profesionalak 14
4. ALDERDI ARTISTIKOAK 15
5. EMANALDIAK 16
 - 5.1 Emanaldi-kopurua eta abesbatza-motak, jarduera-mailaren arabera 16
 - 5.2 Emanaldien produkzioa eta testuingurua 17
 - 5.3 Kontraprestazioak emanaldiengatik 18
6. BALIABIDE MATERIALAK 19
 - 6.1 Lokala 19
 - 6.2 Aurrekontua 20
7. ABESBATZEN EGUNGO ERRONKAK 24

AMAIERAKO SINTESIA 25

1. ABESBATZA HELDUEN PROFIL OROKORRA 25
2. PROFILAK DIMENTSIONEN ARABERA ZEHAZTUTA 26
3. ONDORIO AIPAGARRIAK 34



AURKEZPENA

Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen interes nagusietako bat da bere eragin-eremuan ezagutza handitzea. Horregatik, kultura eta musika korala sustatzeko eta garatzeko eta bazkideen interesak ordezkatzeko eginkizunean, **Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak** inkesta bat egin du **Kulturaren Euskal Behatokiaren** laguntzarekin, sektoreekin elkarlanean aritzeko irekita duen lan-ildoaren barruan.

Inkestaren helburua da abesbatza federatuen sektorearen **erradiografia orokorra** egitea, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan. Helduek osatutako abesbatzei bakarrik erreparatu zaie oraingoan. Aurretik berariazko azterketa bat egin zen bereiz haurren eta gazteen abesbatzentzat. Erradiografia honen helburua da Elkarteak nahiz Eusko Jaurlaritzak egiten duten **laguntza-lanari eraginkortasun handiagoz ekitea**. Era berean, azterketa honek lagunduko du, zeharka, **abesbatzek gizarteari egiten dioten ekarpenari balioa ematen**.

Emaitzen analisiak 7 alderdi hartzen ditu guztira: antzintasuna eta forma juridikoa, generoaren eta adinaren arabeko osaera, elkartekide gisa edo kanpoko profesional gisa lotutako pertsonak, abesbatza-jardueraren alderdi artistikoak, emanaldien ezaugarriak, baliabide materialen analisia eta aurre egin behar dieten erronka garaikideei arreta ematea. Abesbatzen konplexutasuna eta euskal gizarteari dakarkioten balioa erakusten laguntzen du aurpegi askotako ikuspegi honek.

Amaierako sintesian erraz ulertzeko geruza batzuk gehitu ditugu. Atal horretan aurkeztu ditugu profil orokorra eta tipologiak zortzi alderdi desberdin aintzat hartuta eta ikerketaren ondorio esanguratsuenak nabarmenduta, bilakaera historikotik gaur egungo erronketaraino.

Laburbilduz, Euskal Herriko abesbatzen egungo errealitatea dokumentatzeaz gain, kultur panoramari egiten dion ekarpen paregabea ere erakusten du azterketa honek.



METODOLOGIA ETA LAGINAREN DESKRIBAPENA

1. taula. Alderdi metodologikoak.


Lagin-mota: Lagin autoaukeratua	Inkesta-metodoa: Online-inkesta autohornitua
Unibertsoa: 224	Inkesta-kopurua guztira: 159
Landa-lana noiz egin den: 2023ko ekaina-azaroa	Landa-lanaren arduraduna: Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte

Sektorearen erradiografia egiteko, sei bloketan banatu da inkestaren egitura:


1. Abesbatzaren identifikazio-datuak.
2. Alderdi dinamikoak eta kompetentzialak (kideak, ahotsak, emanaldiak...).
3. Zuzendariaren profila (ikasketak, abesbatzarekiko lotura...).
4. Egitura eta antolamendua (dauden elkartekideak eta kuotak, batzarraren bilerak, komunikazio-bideak...).
5. Baliabideak eta finantzaketa (dauden hitzarmenak eta aurrekontuaren banakatzea).
6. Erronkak.




1. irudia. Inkestari erantzun dioten abesbatzen kokalekuari, antzintasunari eta forma juridikoari buruzko oinarritzko datuak. Banaketa zonako elkarteen arabera.



Banaketa antzintasunaren arabera



Banaketa elkarte-motaren arabera





EMAITZEN ANALISIA

1. ANTZINATASUNA ETA FORMA JURIDIKOA


Abesbatza gehienak oso finkatuak daude eta 2000. urtea baino lehen sortuak dira (1. irudia, aurreko orrialdea). % 47,50 duela 25 eta 50 urte artean sortu ziren, % 15 duela 50 eta 100 urte artean eta % 4,38 duela mende bat baino gehiago. Hala, kontuan hartuta haien forma juridiko nagusia elkarte independentea dela (1. irudia), esan daiteke Euskal Herrian oso errotua dagoen kultura-mugimendu asoziatiboa dela. **Tradizio handia** du horrenbestez, herritarren trebetasun artistiko eta kulturalen garapenari loturik, parte-hartze kultural aktiboaren ikuspegitik, eta eragin handia du gizarte-loturak, eta, beraz, komunitatearen arteko kohesioa lortzeko.

Hala eta guztiz ere, Trantsizioaren ondoren,aldi luze batean abesbatza ugari sortu ziren, baina erritmo hori moteldu egin da 2000. urteaz geroztik. 10 abesbatzatik bat bakarrik da 2000. urtea baino geroago sortua. Elkarte independenteen forma juridikoa dute guztiek, eta ez dute adin-eredu zehatzik beren kideei dagokienez. Izan ere, mende berrian sortutako abesbatza asko adineko pertsonak osatzen dituzte (ondoren ikusiko dugun bezala, adin-profil hori da nagusi sektorean).

Horrek lehen gai garrantzitsu bat jartzen du mahai gainean, guztiz kontuan hartu beharrekoa: **belaunaldi-efektua** egon daitekeen arren (jaiotako urtearekin izango luke zerikusia abesbatzekiko erakarpenak), badago **adin-efektua** ere (zahartzen direnean, pertsonen erakargarriak iruditzen zaizkie abesbatzak). Datu horiek erakutsiko luketen beste gauza bat da abesbatzen sorrera moteldu egin dela **“sektorearen heldutasuna”** lortu delako. Hau da, abesbatza aktiboen ahalmen gorena lortu da neurri handi batean, eta zaila da hazkunde nabarmen gehigarriak sortzea. 1. grafikoan, adibidez, joera lineala (azelerazio-fasea) baino malda handiagoa duen aldi baten ondoren, linearen malda jaitsi egiten da eta lerro diagonalera hurbiltzen da berriro. Beste era batean esanda: interesdunen behar kulturalak, oro har, aseak daude abesbatzen sarearekin. Etapa honetan, beraz, erronka ez litzateke haztea izango, mantentzea baizik. Haztea garrantzitsua izango litzateke birsortzearen kontzeptuan, baina ez ezinbestean handitzearen kontzeptuan.



1. grafikoa. Abesbatzen erregistro metatua, sortu ziren urtearen arabera. Joera linealarekiko konparazioa.



*Jatorrizko datuetan, 2008an, ikusten da abesbatzen erregistroak gora egin zuela joeratik kanpo, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen ondorioz seguruenik. Horregatik, badirudi hemen islatzen den eraketa-data ere ez dela benetakoa. Beraz, itxurazko desbideratzeak saihesteko, balio horren ordez, 2008aren aurreko eta ondorengo lau urteetako eraketen batez bestekoa hartu da kontuan.


**Kontuan hartu behar da datuek abesbatzen erregistro metatua adierazten dutela soilik, eta ez dagoela desagertutako abesbatzei buruzko daturik. Hala, datuek abesbatzak sortzeko dinamika adierazten dute, baina ez abesbatzak desagertzeko.




2. OSAERA

Inkestari erantzun dioten 160 abesbatzek soilik badituzte 5.106 kide. Batez beste 33 lagun abesbatza bakoitzeko. Ikuspegi soziodemografikotik, oro har, 55 urtetik gorakoak dira profil nagusia.

2. grafikoa. Kideen ehunekoa adin-taldeen arabera.



3. grafikoa. Gizonen eta emakumeen ehunekoa.



Bai adinaren arabera begiratuta, bai gizonen eta emakumeen arabera begiratuta, oso errealitate desorekatua ageri da: 10 pertsonatik 6 inguru emakumeak dira, eta 10etik ia 7 pertsona 55 urtetik gorakoak dira. Adinaren arabera, 10 pertsonatik 1ek bakarrik ditu 35 urte baino gutxiago (% 8,68). 35 eta 54 urte arteko pertsonak askoz ere gehiago dira, baina ezin da 55 urtetik gorakoekin konparatu (% 23,82). Adinekoak % 60 dira, eta 35 eta 54 urte bitarteko helduak, berriz, % 21.

3. ELKARTEKIDIAK ETA ELKARTEAREKIN LOTUAK

3.1 Elkartekideak

2. irudian ikus daitekeen bezala (hurrengo orrialdean), abesbatzak bi multzotan banatzen dira: bazkideen arabera antolatzen direnak (% 55) eta bazkideak ez direnak (% 45).

Bazkideak dituzten abesbatzen artean, gehienek kuota ekonomikoa ezartzen dute kategoria hori eskuratzeko. Kuota bat ordaindu behar den kasu horietan, bazkide izatea ia kasu guztietan ezinbestekoa da abesbatzan kantatzeko.


Kuota ezartzen ez duten gainerako kasuen artean, oro har, bazkide izatea ez da abesteko baldintza izaten.

Kuota bat ezartzearen edo ez ezartzearen arteko aldeak ez dirudi lotura handirik duenik abesbatzan dauden kideen kopuruarekin. Horren harira, ia berdina da abesbatza batzuetako eta besteetako kideen batez bestekoa, nahiz eta xehetasunez aztertzen badugu alderen bat nabari den batez bestekoetan.

Abesbatza handietan eta oso handietan →(22. grafikoan ikus daiteke, 4.2 sintesia atalean, abesbatzen tipologia, kide-kopuruaren arabera) zati berdina hartzen dute bazkideak dituztenek eta ez dituztenek, eta gainerakoetan egoerak ez du inolako patroiрик jarraitzen: oso txikien kasuan, gehienek badituzte bazkideak (% 57,14), baina abesbatza txikien joera da bazkiderik ez izatea (kasu horien % 36,67k bakarrik dituzte). Aitzitik, azkenik, bazkideak izateko joera dute abesbatza ertainek. Azken kasu horretan, bazkideak dituzte abesbatza ertainen % 61,54k.

Horren harira, kontuan hartuta abesbatza gehienak ertainak direla eta abesbatza handiak edo oso handiak gutxi direla, baina kide asko biltzen dituztela, kontuan hartu behar da kasu handienei lotuta dagoela bazkideak izateko formula.

2. irudia. Egoeraren laburpena bazkideak eta kuotak izateari dagokionez.



Datuen banakapena


Ehunekoak lagin osoarekiko

Bazkiderik ez	% 45
Bazkideak bai	% 55
Bazkideak bai + Kuota bai	% 47,85
Bazkideak bai + Kuotarik ez	% 6,15



Kuota ezarria duten kasuetan, **batez beste**, urtean **86,22 €-koa da kuota** (4. grafikoa). Gutxieneko kuota 10 €-koa da, eta gehienekoa 300 €-koa. Berriz ere horrek erakusten du egoerak desberdinak direla abesbatza bakoitzaren tipologiaren arabera. Batez bestekoaren azpitik daude abesbatzen % 57.

4. grafikoa. Kuotaren zenbatekoaren banaketa eta batez bestekoarekiko konparazioa (eurotan).



Era berean, kuota txikiena duen abesbatza-taldearen aurrekontua 15.354 €-koa da (batez bestekoa desbideratzen duen muturreko kasu bat alde batera utzita), eta kuota handiena dutenena, berriz, 10.384 €-koa. Zentzua hartzen du horrek bazkide-kopuruaren arteko aldea kontuan hartuta: tamaina txikikoetan, zentzuzkoa dirudi pentsatzea kuota handiagoak behar direla gastuei aurre egiteko; handietan, berriz, kide gehiagoren artean zatitu daitezke gastu berberak. Lehen aipatu dugun bezala, abesbatza oso txikien kasu bakanetan nolabaiteko joera dago bazkideak izateko (abesbatza oso txikien % 56,25ek bazkideak dituzte, baina abesbatza txikien % 36,67k baino ez dituzte).



3.2 Abesbatzaren zuzendaritza artistikoa

Generoa

Abesbatzen osieran ikusi badugu ere, generoari erreparatuta, gehienetan presentzia nabarmena dutela emakumeek, joera hori alderantzizkoa da abesbatzaren zuzendaritza artistikoaren kasuan, eta pisu pixka bat handiagoa dute gizonak. Hala eta guztiz ere, parekotasunetik hurbil dagoen errealitatea erakusten dute kopuruek: **% 56,25 gizonak dira eta % 43,13 emakumeak**¹.

Nahiz eta hemen ez den abesbatzaren zuzendaritza erakunde gisa aztertu (zuzendaritza-batzordea), maila artistikoan baizik, eta datuak muturrekoak ez badira ere, bat datoz genero-desberdintasunaren fenomeno globalarekin, non emakumeek pisu txikiagoa duten zuzendaritza-postuetan (kasu honetan, abesbatzaren zuzendaritza), baita espazio feminizatuetan ere.

Abesbatzako zuzendaritza-postuan sartzeko, beraz, abesbatzako kideak sartzekoaz bestelako dinamika dago. Horren harira, arrazoizkoa dela dirudi pentsatzea badirela beste faktore batzuk errealitate horren atzean, hala nola gaitasunen eta esperientziaren garrantzia eta hori guztia gizonen eta emakumeen artean pixka bat desberdin banatzea, datu hauek erakusten duten bezala.

Horren harira, esate baterako, gizonetako zuzendarien % 34,38k goi-mailako titulazioak dituzte, eta emakumezko zuzendarien kasuan, berriz, % 28,13k. Bestalde, (araututako prestakuntzarik gabe), musikaren esparruan irakaskuntza arauturik ez duten gizonetako zuzendarien ehunekoa % 5,63koa da, eta emakumezkoen artean, berriz, % 0,63koa. Bi kasuetan egoera hutsala bada ere, emakumeen artean ia ez dago halakorik. Edonola ere, datuei erreparatzen badiegu, argi dago abesbatzen zuzendaritzan badirela zenbait desberdintasun, eta desberdintasun horiek gizarte-dinamika orokorragoetan dutela jatorria.

Titulazioak


Abesbatzak zuzentzen dituzten ia pertsona guztiek (% 93,75) titulazio arautuak dituzte musikaren arloan.

Gehienek **goi-mailako ikasketak** dituzte, % 62,5ek guztira (% 51,88k goi-mailako graduak eta % 10,63k 66ko planeko goi-mailako titulazioak). % 28,13k gradu profesionalak (% 14,38) eta 66ko planeko erdi-mailako tituluak (% 13,75) dituzte. Gainerako % 3,13k, musikaren alorreko beste ikasketa arautu batzuk dituzte.


1. Kasu baterako ez dago daturik; horregatik, generoari lotutako ehunekoen batura ez da % 100 izango.




5. grafikoa. Abesbatzetako zuzendarien tituluak, sexuaren arabera (%).



6. grafikoa. Ikasketa ez-arautuak egin dituzten zuzendarien ehunekoa, sexuaren arabera (%).



7. grafikoa. Federazioen ikastaroak egin dituzten zuzendarien ehunekoa, sexuaren arabera (%).



Kontuan hartuta musikaren alorrean irakaskuntza arautuak direla nagusi (% 6,25ek bakarrik ez dituzte), **irakaskuntza ez-arautua eta Elkartearen eta bere federazioen ikastaroak osatzeko eta espezializatzeko dira batez ere**. Ez da, beraz, ordezko prestakuntza.


Titulazio arautuen generoaren arabera banaketa horrez gain, aipatzekoa da irakaskuntza ez-arautuetan (guztizkoaren % 35) emakumeak baino bi aldiz gehiago direla gizonak. Elkartearen beraren ikastaroetan ere (% 46,25), emakumeak baino % 10 gehiago dira gizonak.



Lotura profesional mota

Era askotako lan-loturak dituzte abesbatzak zuzentzen dituzten pertsonak. 8 kasu kenduta, horien informaziorik ez baitugu lortu, multzo nagusia boluntarioek osatzen dute (% 39,44). Jarraian, multzo handi bat autonomoen erregimenean ari diren pertsonak dira (% 30,28), eta beste multzo handi bat, txikiena bada ere, kontratatuak (% 26,06). Beste egoera batzuetan dauden % 4,23an, % 1,83an ordaindu egiten zaio zuzendariari, baina ez modu erregularran.

8. grafikoa. Abesbatzak zuzentzen dituzten pertsonen lan-lotura mota, sexuaren arabera eta batez bestekoa guztira (%).



Aipatzekoa da boluntarioen ehunekoa handiagoa dela emakumeen artean (% 44,26) gizonen artean baino (% 36,25). Aitzitik, kontratatuaren eremuan dago alde handiena: gizonen artean, haien % 28,75 kontratatuak daude, eta emakumeen artean, berriz, % 22,95. Autonomoen erregimeneko lanaren kasuan, % 31,25 gizonak dira eta % 27,87 emakumeak.


Berriz ere alde handirik ez dagoen arren, ikusten da gizonak gehiago direla eta baldintza material hobeak dituztela; izan ere, boluntariotza (eta, beraz, ordainsari falta) pixka bat handiagoa da emakumeen artean.




3.3 Abesbatzekin lotutako profesionalak

Abesbatzekin lotutako beste profesional batzuei dagokienez, instrumentisten parte-hartzea nabarmentzen da, lau abesbatzatatik hirutan gertatzen baita. Kasuen % 45,38tan parte-hartze hori boluntario modukoa da, eta % 38,65etan, berriz, ordaindutako zerbitzua da, batez ere autonomoen erregimeneko kontratazioarekin (% 26,05).

9. grafikoa. Lotutako profesional-motak (%).



10. grafikoa. Lan-lotura mota, profesionalak bereizita (%).




Bigarren lanbide-profil lotuena, baina ez hain hedatua, irakasleena da (% 34,38), eta azkenik kudeaketako eta administrazioko zeharkako profesionalena (% 15). Azken bi kasu horietan, boluntarioen kopurua askoz ere txikiagoa da, kasuen laurdena inguru.


Kasu batzuetan abesbatzako zuzendariak berak jotzen ditu instrumentuak edo ematen ditu eskola batzuk.

4. ALDERDI ARTISTIKOAK


11. grafikoa. Abesbatzak ahots-moten arabera (%).



12. grafikoa. Abesbatzak ahots-kopuruaren arabera (%).



13. grafikoa. Abesbatzak musika-akonpainamenduaren arabera (%).



Gizonezkoak gutxiago diren arren, 10 abesbatzatik ia 8k ahots mistoak dituztela diote. Gehienak 4 ahotseko abesbatzak dira (% 70). Gainerako % 20,63, berriz, 4 ahots baino gehiagoko abesbatzak dira. Aitzitik, 4 ahots baino gutxiagokoak oso urri dira (% 8,13k hiru ahotsetan abesten dute eta % 1,25ek baino ez bi ahotsetan).

Gehienek a capella abesten dute (% 48,13) edo pianoak lagunduta (% 33,5). Abesbatzen % 8,75ean modu konbinatuan egiten da akonpainamendua (pianoa eta a capella, a capella eta instrumentuekin, pianoa eta organoarekin..). Kasuen % 5,63an, zehazki, organoak laguntzen du. Beste akonpainamendu-modu batzuen hondar-aukeran, instrumentu-multzoa (% 2,48), orkestra (% 1,26), akordeoia (% 0,63) eta aurrez grabatutako musika (% 0,63) daude.


5. EMANALDIAK

5.1 Emanaldi-kopurua eta abesbatza-motak, jarduera-mailaren arabera

Aztertutako abesbatzek 1.682 emanaldi egiten dituzte urtean zehar: batez beste 11 emanaldi abesbatza bakoitzeko. Horrek esan nahi du abesbatza bakoitzak ia emanaldi bat egiten duela hilean. Jakina, errealitatean hori ez da horrela, eta badira aldeak kasu batzuetan oso handiak direnak: gutxieneko emanaldiak 1 eta gehienekoak 60.

14. grafikoko eta 2. taulako emaitzei erreparatuz gero, lehen azterketa zehatzagoa egin daiteke emanaldiei buruz. Kasuen ia erdiak batez bestekoaren azpitik daude (% 42,11, batez beste 6,2 emanaldi) edo batez bestekoaren oso azpitik (% 5,92, urtean 2,2 emanaldi batez beste).

14. grafiko. Abesbatzen kategoriak, emanaldi-kopuruaren arabera. Kopuruaren pisua abesbatza guztiekiko, eta egiten dituzten emanaldien kopurua emanaldi guztiekiko (%).



2. taula. Abesbatza-kategoria bakoitzeko emanaldien batez bestekoa, minimoa eta maximoa, emanaldi-kopuruaren arabera.

	Batez bestekoa	Minimoa	Maximoa
Batez bestekoaren oso azpitik	2,2	1	3
Batez bestekoaren azpitik	6,2	4	8
Batez bestekoaren inguruan	10,8	9	13
Batez bestekoaren gainetik	16	14	20
Batez bestekoaren oso gainetik	32,2	22	60



Beste zati garrantzitsu bat (% 26,32) batez bestekoaren inguruan dabil (9-13 emanaldi). Beste muturrean daude batez bestekoaren gainetik dauden kasuak (batez beste 16 emanaldi, kasuen % 17,11) edo batez bestekoaren oso gainetik daudenak (kasuen % 8,55, urtean batez beste 32,2 emanaldi egiten dituztenak).

Hala, kategoria horien artean nahiko zatitua dago emanaldien banaketa (batez bestekoaren oso azpitik daudenak izan ezik). Hau da, kasu gutxi daude batez bestekoaren gainetik, baina emanaldi asko egiten dituzte. Aitzitik, kasu asko daude, banaka emanaldi gutxi egiten dituzten arren, ikuspegi orokorrean oso garrantzitsuak direnak. Adibidez, batez bestekoaren oso gainetik dauden emanaldiak egiten dituen multzoa abesbatzen % 8,55 da guztira, baina emanaldi guztien % 24,85 egiten dituzte. Bestalde, batez bestekoaren azpitik dauden jarduerak egiten dituen multzoa abesbatzen % 42,11 da guztira eta emanaldi guztien % 23,48 egiten dituzte.

5.2 Emanaldien produkzioa eta testuingurua

Produkzioak propioak edo beste batzuenak diren kontuan hartuta, lehenik eta behin, produkzio propioak dira nagusi emanaldietan (guztizkoaren % 59,63), baina ugari dira beste batzuen produkzioak ere (% 40,37).

Bigarrenik, testuinguruari erreparatzen badiogu, udalerrriaren barruan egiten dira emanaldi gehienak (% 60,64). Emanaldi horietako gehienak (% 40,49) produkzio propioak dira, eta beste kopuru handi bat (% 20,15) beste batzuen produkzioekin egiten dira.


Gainerako % 40, batez ere probintziaren barruan egiten diren emanaldiak dira, eta gutxi dira autonomia-erkidegoan, estatuan eta nazioartean egiten direnak. Azken eremu zabalago horietan egiten diren emanaldietan, batez ere nazioartean, pixka bat gehiago dira beste batzuen produkzioak.

Hala, udal-eremutik kanpoko emanaldien kopurua % 39,36koa da, eta horietan % 19,14 produkzio propioak dira eta % 20,21 beste batzuen produkzioak. 10 emanalditatik 2 udal-eremutik kanpokoak eta beste batzuen produkzioak izateak **adierazten du benetan garrantzitsuak direla sareko errealitatea eta mugikortasun-dinamika.**


Alde horretatik, kategoria baztertzaileak izan gabe, emanaldien % 23,46 jaialdien edo beste kantu-topaketa sektorial batzuen esparruan egiten dira, eta % 29,67 beste abesbatza batzuekin partekatutako emanaldiak dira.



15. grafikoa. Produkzio-motak egiten diren lekuaren arabera (%).



16. grafikoa. Emanaldiak jaialdietan, beste abesbatza batzuekin partekatutako emanaldiak, dirutan kobratzen diren emanaldiak eta joan-etorrien eta/edo dieten kostuak ordainduak dituzten emanaldiak (%).



5.3 Kontraprestazioak emanaldiengatik

Azkenik, mugikortasun-dinamika horri dagokionez, garrantzitsua da aztertzea emanaldiengatik kontraprestaziorik dagoen dirutan edo espezieetan (16. grafikoa). Horren harira, **guztizko emanaldien % 20,68 dirutan kobratzen dira, eta haien % 14,03k ordainduak izaten dituzte joan-etorrien eta/edo dieten gastuak.**


6. BALIABIDE MATERIALAK

6.1 Lokala


Lokal bat izatea, batez ere entseguetarako, funtsezko baldintzatzailea da abesbatzen jardueran.

Kasu gehienetan (% 63,13) erabilera partekatuko lokalak dira. Batez ere udal-ekipamenduak dira (10etik 6), baina parrokiaren lokalak ere garrantzitsuak dira (10etik 2). 10 kasutik 1ean, beste ekipamendu pribatu batzuek lagatzen dute espazio hori.


17. grafikoa. Abesbatzen entsegu-lokalen motak (%).



18. grafikoa. Lokal partekatuen motaren xehetasuna (%).



19. grafikoa. Lokal propioaren motaren xehetasuna (%).



Kasuen % 13,13an lagatua izaten da lokala, baina inkestan ez da behar adina informazio ematen erabilera partekatua edo eskusiboa duten zehazteko.

Abesbatzen % 20,63k soilik dituzte lokal propioak. Hau da, erabilera eskusibokoak. Erdiak erakunde publiko batek utziak dira, eta guztizkoaren laurdena alokairuan hartutako lokalak dira. Gainerako formulak dira jabetzakoak eta erakunde pribatuek utziak.

6.2 Aurrekontua

Hitzarmenak

Aurrekontuari dagokionez, lehenik eta behin, nabarmentzekoa da **hitzarmenak ezartzeko formularen hedadura % 24,38koa dela**. Hitzarmen horietan, gehienetan, dirulaguntza ekonomiko publikoa eskaintzen da emanaldien truke. Ia hitzarmen guztiak hartzen dituen joera hori gorabehera, beste elementu batzuk barne hartzen dituzten formulak ere badira.

Adibidez, erakunde batzuek adierazi dute udalerrriaren kanpo-ordezkaritza egiten dutela, beste jarduera batzuetarako espazioa eskaintzen dutela, edo udalaren kultura-politikaren helburuekin bat egiten dutela, aliantza estrategikoa ezarriz.


Bestalde, Administrazio publikoaren kontraprestazio ekonomikoa da formula nagusia, baina hainbat kasutan lokala lagatzea da kontraprestazio hori. Hemen ere badira zehaztapenak. Kasuren batean garraioa eta zabalkundea sartzen dira, baita inprimatzeko/hedatzeko gastuak ere. Kasu batean, zehazki, sarrera ordaindu behar den emanaldi jakin batzuetako diru-sarreraren ehuneko bat da kontrapartida.

Diru-sarreraren kopurua eta banaketa

Batez beste, 21.908,20 €-koa da abesbatzen aurrekontua. Diru-sarrera propioak dira aurrekontuaren zatirik handiena (% 48,50). Funtsezko beste zatia, pixka bat txikiagoa, dirulaguntza publikoak dira (% 42,09). Diru-sarrera propioen partidarik handiena kuotak dira, eta, ondoren, emanaldiekin lotutako diru-sarrerak. Dirulaguntzei dagokienez, eragile nagusia udalak dira, alde handiarekin gainera. Babesletzaren eta mezenasgoaren diru-sarrerak % 2,25 dira batez beste. Ikuspegi orokor horrek alde nabarmena ezkututzen du hiriburu handietako eta gainerako udalerrietako abesbatzen artean.



20. grafikoa. Abesbatzen aurrekontuan partida desberdinek duten pisuaren batez bestekoa (%).



Bereizketa geografiko horretan sartu aurretik, 3. taulan abesbatzen tipologia ageri da, partida bakoitzaren pisuaren arabera. Autofinantzaketa handia edo esanguratsua duten abesbatza gehiago daude (% 42,04) dirulaguntzetan nabarmen edo osorik oinarritutako finantzaketa dutenak baino (% 31,84).

3. taula. Abesbatza-motak, dituzten finantzaketa-iturri nagusien arabera (%).

Autofinantzaketa handia edo osoa duten abesbatzak (% 80 baino gehiago diru-sarrera propioetatik)	% 28,03	% 42,04
Autofinantzaketa nabarmena duten abesbatzak (% 60-80 diru-sarrera propioetatik)	% 14,01	
Diru-sarrera mistoak dituzten abesbatzak (oreka dirulaguntzen eta diru-sarrera propioen edo beste diru-sarrera batzuen artean)	% 26,11	% 26,11
Nabarmen diruz lagundutako abesbatzak (% 60-80 dirulaguntzetatik)	% 17,83	% 31,84
Nabarmen edo osorik diruz lagundutako abesbatzak (% 80 baino gehiago dirulaguntzetatik)	% 14,01	



Diru-sarreraren eta dirulaguntzen arteko lotura hori oso desberdina da testuinguru geografikoen arabera (4. taula). Egoitza hiriburu handietan duten abesbatzetan (guztira aztertutako abesbatzen % 30,82), % 13,74ra jaisten da udalaren dirulaguntzen pisua. Ez dago beste administrazioerik udalek ez duten garrantzi hori hartzen duenik: bazkideen kuotek dute garrantzia. Kasu horietan, % 44,78koa da kuoten bidezko diru-sarreraren batez bestekoa. Emanaldiengatik diru-sarrerak, berriz, % 22,72 dira. Hala, beste jarduera batzuegatiko diru-sarrerekin batera, batez beste gutxienez % 72,68 dira diru-sarrera propioak.

Aitzitik, egoera alderantzizkoa da gainerako udalerrietan:

- Udalen dirulaguntzak % 46,39 dira.
- Kuoten bidezko sarrerak % 21,56 dira
- Emanaldien diru-sarrerak % 13,76 dira
- Oro har, beste jarduera batzuegatiko diru-sarrerekin batera, batez beste, gutxienez % 38,24 dira diru-sarrera propioak.

4. taula. Aurrekontuaren osagai nagusien pisuaren konparazioa, hiriburuetan dauden abesbatzak eta gainerako udalerrietakoak bereizita (%).

	Hiriburuak	Gainerako udalerriak
Pisua Udalaren dirulaguntzak	% 13,74	% 46,39
Pisua Kuoten bidezko diru-sarrerak	% 44,78	% 21,56
Pisua Emanaldien diru-sarrerak	% 22,72	% 13,76
Pisua Diru-sarrerak kuotengatik + emanaldiengatik+ beste jarduera batzuegatik	% 72,68	% 38,24
Pisua Diru-sarrerak dirulaguntzengatik guztira (udala + probintzia + eskualdea + estatua)	% 16,95	% 52,66



Abesbatzen antzinasunarekin du zerikusia (5. taula) zenbait desberdintasun erakusteko gaitasuna duen beste ikuspegi batek. Alde horretatik, ikus daiteke abesbatza berriek kuoten bidezko diru-sarreretan dutela oinarri handiena. 5. taulan ikus daitekeenez, 2010 baino lehenagoko abesbatzetan % 39,75 eta % 45,98 artekoa da dirulaguntzen pisua, baina abesbatza berriek % 26,47koa baino ez da. Dirulaguntzen pisua txikiagoa da abesbatza berriek.

Emanaldien bidezko diru-sarreraren kasuan, alderantzizkoa da patroia, eta askoz ere pisu handiagoa du abesbatza berriek. Kuoten alderdiari dagokionez, 2001 eta 2010 arteko kasuak ere ezaugarri bera dute berriekin, eta biak bereizten dira aurrekoetatik: kuoten bidezko diru-sarreraren pisua % 10 handiagoa da 2000. urtearen ondorengo kasuetan aurrekoetan baino.

Azkenik, babesletzen eta mezenasgoaren alde ere apustu handiagoa egiten dute kasu berriek: zati txiki bat bada ere, kasu horietan garrantzitsuagoa da. Horren harira, abesbatzarik zaharretan ere zertxobait garrantzitsuagoa da estrategia hori.

5. taula. Aurrekontuaren osagai nagusien pisuaren konparazioa, abesbatzak antzinasunaren arabera bereizita (%).

	1975 baino lehen	1976 eta 2000 artean	2001etik 2010era	2010etik gaur egunera
Pisua Diru-sarrerak dirulaguntzengatik guztira (udala + probintzia + eskualdea + estatua)	% 39,75	% 45,98	% 43,40	% 26,47
Pisua Kuoten bidezko diru-sarrerak	% 25,28	% 25,67	% 36,52	% 35,84
Pisua Emanaldien diru-sarrerak	% 16,00	% 15,30	% 12,16	% 27,79
Babesletzen eta mezenasgoen pisua	% 4,41	% 0,93	% 2,68	% 3,79

Aurrekontuaren analisiak, beraz, **hainbat dinamika sozial erakusten ditu udalerrien tamainaren arabera**. Era berean, nabarmentzekoa da abesbatza berriek jasagarritasunerako **garrantzitsua dela kuotetan oinarritutako finantzaketa-estrategia**, eta garrantzitsuak dira, halaber, neurri txikixeagoan, emanaldien ondoriozko diru-sarrerak.




7. ABESBATZEN EGUNGO ERRONKAK

Ikuspegi orokorretik begiratuta, lau erronka nagusi nabarmentzen dira:

- Gizonezko kide berriak erakartzea.
- Emanaldietara publikoa erakartzea.
- Baliabide ekonomikoak lortzea.
- Emanaldiak lortzea.

21. grafikoa. Abesbatzen erronkak, beren balorazioaren arabera, 1etik (ez hain garrantzitsua) 5erako (garrantzitsuagoa) eskalan.



Garrantzi ertaineko bigarren erronka-multzoa honako hauek markatzen dute: emakumezko kide berriak erakartzea, administrazio-izapideak egiteko zailtasunak (dirulaguntzak, alderdi fiskalak...) eta belaunaldi-erreleboa erantzukizuneko karguetan.

Azkenik, garrantzi txikiarekin, entsegu-lokalaren ezaugarriekin lotutako hobekuntzak daude.

Gogoratu behar da datu horiek batez besteko orokorrak direla, eta, oro har, zeharkakoak ez diren gaiak egon arren, funtsezkoak izan daitezkeela zenbait abesbatzarentzat. Hala eta guztiz ere, analisiak ez du eredu argirik hauteman, kasuak oso bereziak baitira.

AMAIERAKO SINTESIA

1. ABESBATZA HELDUEN PROFIL OROKORRA

25 eta 45 kide arteko tamaina erdiko abesbatzak.

2000. urtea baino lehen sortuak.

55 urtetik gorako pertsonak dira nagusi, argi eta garbi.

Abesbatza mistoak, emakumeen presentzia nabarmena dute.

Udalerrietan errotutako abesbatzak, gutxi mugitzen direnak zein probintzian asko mugitzen direnak.

Emanaldiengatik zuzenean kobratu gabe aritzen dira normalean.

13.000 eurotik beherako aurrekontua dute, batez ere 1.000 eta 5.000 euro artekoa.

Autofinantziazio maila handia edo diru-sarrera mistoak dituzte, dirulaguntzen eta beste diru-sarrera batzuen artean orekatuz.






2. PROFILAK DIMENTSION ARABERA ZEHAZTUTA

Kide-kopuruaren arabera

22. grafikoa. Abesbatza-taldeak, kide-kopuruaren arabera (%) Kasuen % 3,14an ez dago kide-kopuruari buruzko informaziorik.




Abesbatzen erdiak (% 48,75) "ertainen" tipologian biltzen dira, eta batez bestekoaren inguruan dabil kide-kopurua (25-45 kide).

Abesbatza txikiak edo oso txikiak % 27,5 dira. Abesbatza handiak edo oso handiak, aldiz, gutxiago dira, baina pisu handia dute, guztizkoaren % 21,25 baitira.



Antzinasunaren arabera

23. grafikoa. Abesbatza-taldeak, sortu ziren urtearen arabera (%).




Abesbatza-sare oso finkatua da. 10 abesbatzatik zazpi 2000. urtea baino lehen sortu ziren. Gehien-gehienek, beraz, ia mende laurdena egin dute gutxienez.

Gaur egun ere abesbatzak finkatzen ari dira, eta hamar abesbatzatik bat 2010 baino geroago sortua da.



Kideen adinaren arabera

24. grafikoa. Abesbatza-taldeak, kideen adinaren arabera (%) Kasuen % 3,14an ez dago kideei buruzko informaziorik.



Abesbatza helduetan adin handienekoak dira nagusi (55 urtetik gorakoak). 10 abesbatzatik 7 ingurutan adineko pertsonak (55 urtetik gorakoak) dira adin-talde nagusia: % 37,66 abesbatzatan % 60 baino gehiago dira adin handikoak, eta % 29,22 abesbatzatan, berriz, 55 urtetik gorako pertsonak bakarrik daude.


Askoz ere gutxiago dira 35 eta 54 urte arteko helduen eta 55 urtetik gorakoen artean nolabaiteko oreka duten abesbatzak (% 11,69) edo 35 eta 54 urte bitartekoak argi eta garbi nagusi direnak (% 7,14).

Kide gazteak soilik dituzten abesbatzak (19 eta 34 urte artean, % 1,95) edo gazteak argi eta garbi nagusi direnak (% 4,55) % 6,49 dira. Gazteen presentzia % 15etik gorakoa duten 35-54 urte arteko pertsonen abesbatzak kontuan hartuz gero (gutxiengoa dira, eta gutxi nabari da haien presentzia), % 11,04ra igotzen da kopurua.



Generoaren arabera

25. grafikoa. Abesbatza-taldeak, kideen generoaren arabera (%) Kasuen % 2,5ean ez dago kideei buruzko informaziorik.




Generoari dagokionez, abesbatza-mota nagusia da (guztizkoaren erdia, % 47,74) gizonak eta emakumeak dituena, baina azken horiek dira nagusi argi eta garbi. Emakumeak nagusitzen diren edo guztiak emakumeak diren tipologia guztizkoaren hiru laurden dira (% 75,48).

Osaera mistoagoa duten abesbatzak, gizonen eta emakumeen ehuneko oso berdinekin, % 12,9 dira.

Gizonetzkoen aldean txikiagoa da grisen gama. Kasu horretan, edo mistoak dira (% 3,23) edo guztiak gizonetzkoak dira (% 8,39).

Emanaldietan duten mugikortasunaren arabera

27. grafikoa. Abesbatza-taldeak mugikortasun-eremuaren arabera (%).




Abesbatzen tipologia, mugikortasunaren arabera, askotarikoa da. Udalerrri mailan errotutako abesbatzak badira ere abesbatza-mota nagusia (% 87,5), ñabardura ugari ageri dira. Hala, horien artean, probintzian mugikortasun handia edo udalerrian mugikortasun txikia dutenak dira multzo nagusiak.

Abesbatza dinamikoak (grafikoaren eskuinaldean) % 12,50 dira, eta horien artean badira mugikortasun autonomiko handia dutenak eta askotariko mugikortasun oso handia dutenak, batzuk nazioartean ere emanaldiak egiten dituztenak eta beste batzuk ez.



Emanaldiengatik dirua kobratzearen arabera

28. grafikoa. Abesbatza-taldeak, emanaldiengatik dirua kobratzearen arabera (%).




Abesbatzen ia erdiek ez dute zuzenean kobratzen beren emanaldiengatik. Guztizkoaren laurden batek bere emanaldien % 25 baino gutxiago kobratzen du.

Abesbatza gutxi dira (% 8,55) ia emanaldi guztiak kobratzen dituztenak, eta azpimarratu behar da abesbatza horiek, oro har, emanaldi gutxi egiten dituztela (7,69 emanaldi, batez beste). Beste abesbatza gutxi batzuek, aldiz, emanaldien % 50 eta % 75 artean kobratzen dituzte, eta abesbatza horiek, batez beste, emanaldi ugari egiten dituzte (18 emanaldi guztira).



Aurrekontu-mailaren arabera

29. grafikoa. Abesbatza-taldeak, aurrekontu-mailaren arabera (%).




Aurrekontuaren batez bestekoa 11.000 euro ingurukoa da, eta hori da oinarria tipologia aurrekontu-mailaren arabera sortzeko. Hala eta guztiz ere, banaketak maila txikiak erakutsi ditu argi eta garbi: ia erdia, % 49,38, batez besteko horren azpitik dago. Horrek esan nahi du kasu gutxi batzuek oso aurrekontu handia dutela eta batez bestekoa desbideratzen dutela (% 3,75).

Abesbatzen bi herenek (% 66,25) aurrekontu ertaina edo txikiagoa dute. Talde honetako profil zabalena da 1.000 eta 5.000 euro arteko aurrekontu txikia dutenena (% 26,88).



Diru-sarreraren egituraren arabera

30. grafikoa. Abesbatza-taldeak, diru-sarreraren egituraren arabera (%).



Zeharka oso hedatua bada ere dirulaguntzen presentzia, diru-sarreraren egituraren araberako abesbatzen tipologiak adierazten du nahiko handia dela finantzaketa-iturri propioen maila.

Diru-sarrera mistoetan oinarritzen da tipologia (dirulaguntzen eta diru-sarrera propioen arteko oreka) eta autofinantzaketarantz jotzen du. Nabarmen, asko edo erabat diruz lagundutako abesbatzak 10etik 3 dira; gainerakoek, berriz, diru-sarrera mistoak dituzte, edo pisu nabarmena edo oso handia du autofinantzaketak.



3. ONDORIO AIPAGARRIAK

Helduen abesbatzen antzinasunak eta forma juridikoak erakusten dute Euskal Herrian tradizio handia duen elkarte-mugimendua dela. Mugimenduaren bilakaera historikoak adierazten du heldutasun-fasean daudela. Abesbatza berriak sortzeko erritmoa moteldu egin da. Fase honetan, erronka ez litzateke izango abesbatzen kopurua handitzea, baizik eta lehendik daudenak kontserbatzea, adin-efektu argia egon daitekeela kontuan hartuta (abiesbatzak erakargarriak dira adineko pertsonentzat).

5.000 pertsona baino gehiago mobilizatzen dituzte aztertutako abesbatzek soilik, eta 1.500 emanaldi baino gehiago egiten dituzte urtean. Abesbatzek zenbat kide dituzten eta zenbat emanaldi egiten dituzten ikusita, argi dago ekarpen handia egiten dutela komunitateko kide izatearen sentimendua indartzeko eta gizarte-kohesiorako. Ekarpene hori are nabarmenagoa da kontuan hartzen badugu, oro har, oso txikia izanda ere, badagoela mugikortasuna beste udalerrri batzuetara. Hala, udalerrrien mugak gainditzen dituzten loturak sortzen dira. Kasu batzuetan, gainera, Euskal Herritik kanpo ere egiten dituzte emanaldiak abesbatzek, eta estatura eta nazioartera ere joaten dira zenbaitetan.

Garapen artistiko pertsonalerako espazio gisa, abesbatzak bereziki baliotsuak dira emakumeentzat eta adinekoentzat, eta gertakari garrantzitsua generoari eta zahartze aktiboari (osasuna) dagokienez. Helduek osatutako abesbatza gutxi batzuek belaunaldien arteko osagai argia dute.

Garapen artistiko pertsonal horri laguntzeko, azpimarratzekoa da abesbatza gehienek badituztela zuzendaritzan musika-titulazio ofizialak dituzten pertsonak, bereziki goi-mailako titulazioak dituztenak. Generoari dagokionez, nabarmentzekoa da gizonen presentzia handiagoa dela abesbatzen zuzendaritza artistikoko postuetan (% 55). Hori ez dator bat koruen osarearekin: gizonak % 39 dira eta emakumeak % 61. Hau da, zuzendaritza-postuetan alderantzizkoa da joera.

Alderdi ekonomikoan, eta dirulaguntza handiak jasotzen dituztela uste izan arren, datuek erakusten dute abesbatza askok autofinantzaketa-maila handia dutela (hamarretik lautan, % 60 baino gehiago dira diru-sarrera propioak). Bazkideek ordaintzen dituzten kuotetatik etorritako diru-sarreretan oinarritzen da batez ere formula hori. Hala eta guztiz ere, egia da dirulaguntzen bidezko babes publikoa oso garrantzitsua dela abesbatzen sare zabal eta anitza mantentzeko (hamar kasutatik hirutan dirulaguntzetatik dator diru-sarreraren % 60 baino gehiago). Hori bereziki egia da lurralde-ikuspegian: udal-dirulaguntzak funtsezko faktorea dira hiriburuetatik kanpo dauden abesbatzei eusteko.

Alde handiak dauden arren eta aztertutako abesbatzetako hiruk biltzen badute ere aurrekontu osoaren % 50, 3.132.873 € mugitzen dituzte aztertutako abesbatzek bakarrik. Batez beste, aurrekontu horien erdiak diru-sarrera propioetatik datoz (beraz, 1,5 milioi euro inguru). Dinamismo ekonomiko horrek eragin berezia du musikaren sektore profesionalean, batez ere musikariak, eta irakasleak kontratatuz.



Azkenik, erronkei dagokienez, lau nabarmentzen dira nagusiki: gizonezko kide berriak erakartzea, emanaldietara publikoa erakartzea, baliabide ekonomiko gehiago lortzea eta emanaldi gehiago lortzea. Programak eta emanaldiak egiteko lehentasun-sorta ezartzen du horrek, hala nola:

- Hezkuntza-erakundeekin eta musika-eskolekin lankidetzan aritzea.
- Kide berriak sustatzeko eta erakartzeko jarduerak, bai eta publikoak garatzeko programak eta sentsibilizazio-kanpaina orokorrak ere.
- Abesbatzen komunikazio-gaitasunak eta tokiko udal-bitartekoekiko konplizitateak hobetzeko prestakuntza-programak.
- Funtsak biltzeko jarduerak egiten laguntzea, eta tokiko negozioen eta enpresen artean Abesbatzak laguntzeko/babesteko sentsibilizazioa sustatzea.
- Elkartrukerako jarduerak sustatzea, sareak sortzea eta jaialdiak eta lehiaketak bultzatzea, bai eta abesbatzen emanaldiak beste kultur sektore batzuetako jardueretan sartzea ere.

